

Bihar bizirik jeikiko gara?
Zaila da bizitza bizitzea.
J.Sarrionandia.

MUGA GUZTIEN GAINETIK

Haize hezea nabari zen udazkeneko gau ilun hartan. Herri hartako hainbat haurrentzat zirudien baino beltzagoa izango zen gau hura. Oharkabean, itzal ezezagunak gerturatu eta arrotza zitzaien lurralde batera eramango baizituzten. Ni haur hauen artean aurkitzen nintzen zoritxarrez. Nire familia nola akabatzen zuten ikusi beharra izan nuen, beraiek zituztenak baino arma hobeez nola akabatzen zituzten, beraien azken indarrak bizirik jarraitzeko aukera urrien kontra erabiliz. Argi dago, guztia duenak, ezer ez duena suntsitzeko gogo bizia izaten duela.

Handik, eskuan arma bat ipini eta tren batean sarturik gudarako prestatuko gintuzten eremu batzuetara eraman gintuzten, ezerezean, galdurik aurkitzen ginen ume guztiok. Horixe ginen, haur galduak, beraien haurtzaroa momentu horretan galdu eta nerabe izatera edo gizon-emakume bihurtzera behartu gintuztenak.

Gure pentsaera, kultura, arraza... berekoen aurka borrokatzera behartuak izan ginen. Baina gure buruetan zegoen ideia bakarra mendekua hartzea zen, zaila baita zure herriaren sufrimentua ahaztea. Urte gogorrak izan ziren haiek eta gaur egunean ere horretan nabil, nolabait, mendekua hartzeko moduren bat asmatu nahian. Baina ez zen guztia zoritxarra ere izan. Etsipen honen artean murgildurik nengoen, itzal horretan, apurka-apurka, eguzki izpi urri batzuk nabaritzen hasi nintzen arte. Udaberrian, guda baten ostean, zauritua gertatu nintzen eta ospitalera eraman ninduten berehala. Bertan ezagutu nuen eromenera bultzatuko ninduen emakumea, gerora nire bizitzako helburu bilakatuko zena. Iamila zen bere izena, adats beltz luzea zuen, bi txirikordetan lotua zeramana. Nire antzera, beltza zen

bere azalaren kolorea eta bere begiek paradisu bi ziruditen. Gorputzak bihurgune perfektuez osaturiko lerroa zirudien, bihurgune hauek bere edertasuna hareagotzen zutelarik. Nire taupadak bizkortu eta lehenbiziko aldiz, maitasunaren txinpartek erre zizkidaten barrenak. Bien baitan gertatu zen zerbait izan zen, ideia horiek bien buruetan gauzatu baitziren. Han inguruan nengoen bitartean elkarrekin egon ginen eta gure maitasunak ez zuela mugarik izango errepikatzen genion elkarri behin eta berriz. Aldiz gauzak ez ziren nahi bezain ongi irten. Hilabete igaro ostean Angola inguruko lurralde horiek utzi eta Nigeria aldera abiatu nintzen. Atzera, maite nuen oro atzean utzirik, egunen batean berriz ere elkartuko gineneko esperantzan, beti ere batak bestearen bihotzean leku berezia izango zuela esanez agurtu genuen elkar. Hor nindoan berriro ere, nire nahien aurka boteretsuenaren agindupean. Ihes egingo banu, nire bila joan eta lepoa moztuko lidatekeela sinestaraztea lortu zuten, beraien mehatxu jarraien bidez, baina, mehatxu horiek bete egin zituzten behin baino gehiagotan. Elkarri gutunak bidaltzea izan zen, kontaktuan jarraitzeko aurkitu genuen modu bakarra. Berak nirearen ostean idatzi zidan gutunaren erantzunean aipatu zidan, nire berriak edukitzeak asko poztu zuela, nik gutun honetan nire sentimendu guztiak adierazi nizkion, oraindik gogoan dut bertan idatzitakoa:

“Iamila maitea:

Egunak luze dira arrotza zaidan bazter honetan. Gauak hotz dira, zure berotasun ezean. Errealitatetik ihes egin nahian nabil, noizbait nire helmugara iritsi nahirik. Erantzunen bila bizi naiz, zure presentziaren bila baina ez ditut inondik ere aurkitzen. Berriz ere zurekin elkartuko naizen egunaz pentsatzen dut goiz eta arratsero. Egun hori ez da nahi bezain laister iristen eta ez dut noiz izango den jakiterik. Atzo arratsean, ihes

egitekotan egon nintzen, merezi al du ahaleginik egin gabe itxaroten egoteak? Berriz ere zure presentziaz gozatzeko, nire eskuekin zure gorputzeko txoko oro ikutzeko... gogo biziz nago. Oraindik ere zure bihotzean niretzat lekua egotea espero dut, nire bihotz guztia zurea baita. Besterik gabe agurtzen naiz maitea.

Betirako zure,

JADMIN”

Oraindik oroitzen naiz hitz bakoitzaz, momentu hauetan ere sentitzen dudana baita. Urtaroak joan eta etorri, guk geure gutunekin jarraitzen genuen, baina gutun hauetako batean jaso nuen berriak, nire bihotza bi zatitan apurtu zuen. Gaixotasun larri batek hartu zuen Iamila eta hilabete bateko bizia eman zioten. Malaria zuen eta bere lurraldean ez zegoen horretarako sendabide nahikorik, izurrite handia izan baitzen Angolan. Hau irakurri eta eduki nuen asmo bakarra bere albora joatekoa izan zen, bere ondoan egon behar nuen momentu hauetan. Beraz gauean ihes egin nuen kanpalekutik, baina Angolara iristeko bidea luzea eta gogorra izango zen. Aireportura iristea zen nire helburua, baina bide erdian, nire ideia guztiek lur jo zuten. Guardia batek atzematerako ni bilatzeko agindua emana zegoen Estatu guztian. Zorionez ez zuten beti errepikatzen zuten mehatxua bete eta beraz, ez zidaten lepoa moztu. Horren ordeztu kartzeleratua izan nintzen. Gau hartan bertan Iamilari gutun bat idaztea beste idearik ez nuen buruan, gutunean nire egoeraren berri eman nion baina agian, beranduegi izango zen, agian gutuna ez zen bere eskuetara garaiz iritsiko. Agian, gutuna bere etxera iristean hilda egongo zen dagoeneko. Ideia honek lur jota uzten ninduen, izugarrizko ezintasuna sentitzen nuen, kanpoan maite nuena hilzorian egon eta ni lau hormen artean harrapaturik egotean. Irteerarik gabe nengoen, haurtzaroa galdu

nuenetik egon izan naizen antzera. Hilabeteen buruan, berri latzak jaso nituen gutun batean.

“Jadmin maitea:

Gutun hau zure eskuetara iristean jada beranduegi izango da. Nire azken borondatea betetzen ariko den ahizpak bidaliko baitu.

Zuk eginiko maitasun froga, izugarria izan dela aitortu beharra dut. Nire alboan egoteagatik zure bizia arriskuan jartzera iritsi baitzara. Horren aurrean hitzik gabe geratzen naiz. Jakin ezazu, nire bizi osoan ezagutu dudan mutilik hoberena izan zarela eta etsipenez betetzen nau irakurtzen ari zarenean beranduegi izango dela berriz ere biok elkar ukitzeko, elkarrekin egoteko pentsatzeak. Hala ere, zure ametsetan beti izango naiz bizirik edo horrela izatea espero dut behintzat. Zure bizitzarekin aurrera jarraitu beharra duzu. Hala ere zure bihotzean beti izango naiz bizirik eta baita zu nirean ere, egin genuen promesa hori beti bizirik egongo baita. Orain artean ez duzu bizitza erraza izan, baina hemendik aurrera gauzak hobetu daitezke, nahiz eta itxuraz horrela ez izan, biok batera izango gara.

Beraz jarrai ezazu aurrera, hau nire azken borondateetako bat baita.

Nahiz eta ni bizirik ez egon, zure barnean bizirik izango naiz, egun batean hala ere elkartuko gara.

Besterik gabe, agur bero bat

Iamila”

Guztiz hunkitu ninduten bere hitzek eta denboraldi batean, malkoak ziren soilik nire begietatik irteten zirenak. Baina denborak gauzak beste modu batean ikusteko lagundu zidan. Itxaropentsu aurrera jarraitu behar nuen. Nire maitearen azken nahia hori baitzen. Hala egin nuen eta horrela izan da

orain arte. Aldaketa asko egon dira, guda guztiak amaitu eta nire kartzela egunak ere bere amaierara iritsi dira.

Gaurkoan oroitzapen guzti hauek bete dituzte nire inguruko txoko guztiak, haurtzaroa eta askatasuna ostu zizkidaten, baina horrenbeste denboraren ostean hauetako bat lortu dut, askea naiz azkenean. Badakit orain ezinbestekoa dudan nire maitearen presentzia, soilik amets bat dela, egia bihurtuko ez den ametsa. Baina orain artean nire askatasunagatik borroka egiteko eduki dudan indarra izan bada, aurrerantzean, etorkizunean ere, beharrezko indarra izango da, mundu irreal batean bada ere, elkarrekin egoteko.